# GALDAKAOKO UDALAREN ETA "ASOCIACION DENDARI ELKARTEA COMERCIO – HOSTELERIA Y SERVICIOS DE GALDAKAO" ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2020. URTERAKO

## BILDU DIRENAK

**ALDE BATETIK,** Javier Ibarreche Asúa jauna, Galdakaoko Udaleko Ekonomiaren Sustapena, Merkataritza, Ostalaritza, eta Turismo arloko zinegotzi delegatua den aldetik, 45.750.189-S N.A.N. zenbakiduna, eman zaizkion ahalmenen ondorioz jardunez kargu hori baliatuz.

**ETA BESTETIK,** Aitziber Bonilla Elejaga andrea, NAN 30.659.988-E, "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkartearen Presidente gisa, IFK: G48849483, eta egoitza soziala Muguru plaza z.g.,Galdakao.

## ADIERAZI DUTE

**LEHENENGOA.-** "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" irabazi asmorik gabeko elkartea da eta ere helburu nagusien artean daude merkatariei lagundu, aholkatu eta prestatzea, profesionalizazio handiagoa izan dezaten, komertzioen kudeaketa hobetzeko eta, azken batean, udalerriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea aktibatu eta sustatzeko.

**BIGARRENA.-** "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak, 2020ko maiatzaren 8ko dataz, 2020. urtean zehar egiteko ekintza eta jarduera programa bat aurkeztu zuen.

**HIRUGARRENA.-** "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela eta diru-laguntzak edo administrazio edo zigor bidetik zehatu ez izana, administrazioaren laguntzak lortu ahal izateko aukera galduz, aitortzen duen erantzukizun-adierazpena aurkeztu du, sexu, arraza edo erlijio arrazoiengatiko diskriminazioa egin izanagatiko zehapenak barne.

## REUNIDOS

**DE UNA PARTE**, D. Javier Ibarreche Asúa, con D.N.I. 45.750.189-S concejal delegado de Promoción Económica, Comercio, Hostelería y Turismo del Ayuntamiento de Galdakao, actuando, en nombre y representación del Ayuntamiento de Galdakao

**Y DE OTRA**, Dª.Aitziber Bonilla Elejaga, con D.N.I. 30.659.988-E, en calidad de Presidenta de la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao, con C.I.F. G48849483 y domicilio social en Plaza Muguru s/n de Galdakao.

## MANIFIESTAN

**PRIMERO. -** La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao es una asociación sin ánimo de lucro cuyas actividades tienen como objetivos primordiales asistir, asesorar y formar a los comerciantes en aras de su mayor profesionalización a fin de que la gestión de sus comercios mejore y, en definitiva, activar y promocionar el sector del comercio la hostelería y los servicios en el municipio.

**SEGUNDO. -** La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao presentó con fecha 8 de mayo de 2020 la solicitud de subvención para la realización de un programa de actuaciones y actividades a realizar durante el año 2020.

**TERCERO. -** La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao ha presentado declaración de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, de 17 de noviembre. Asimismo, ha acreditado no tener deudas con la Hacienda Foral de Bizkaia ni con la Seguridad Social, y de no haber sido sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, incluidas las sanciones por incurrir en discriminación por razón de sexo, raza o religión.



Francisco Javier Ibarreche Asua (1, guztira 3)
Zinegotzia / Concejal
Sinaduraren data: 12/06/2020
HASH: 14e38cf9af9009fe72a8f952f575fdfa

BONILLA ELEJAGA, AITZIBER (2, guztira 3)
Hirugarrena
Sinaduraren data: 12/06/2020
HASH: 5cb03e1aef38eb4ca4eee8c1f2bc806e

Itxaso Trigueros Rojo (3, guztira 3)
Idazkari Orokorra / Secretaria General
Sinaduraren data: 15/06/2020
HASH: a73c212675a3506b4cc6cdba8627b047

Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 9

**LAUGARRENA.-** Galdakaoko Udaleko aurrekontuan, 2020ko ekitaldirako, **80.000,00** euroko izendun diru-laguntza dago aurreikusita dago "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkartearentzat, 04.4314.481.20 zenbakidun aurrekontu partidan zordunduta, 2020an zehar egiteko ekintza eta jarduera programari laguntzeko, tokiko merkataritza sustatzeko helburuarekin.

**BOSGARRENA.-** Galdakaoko Udalak, Zinegotzi Delegatuaren 2008/06/2020 ko Ebazpenaren bidez, honako hau ebatzi du: "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteari, IFK. G48849483, aipatutako diru-laguntza ematea, hitzarmen arautzaile bat izenpetzeko baldintzarekin eta agiri honekin baldintza hori bete egiten da.

Azaldutakoaren ondorioz, alderdi biek, ados jarrita, Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzeko interesa adierazi dute, hurrengo klausula hauen arabera:

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA.- Helburua**
Hitzarmen honen helburua da Galdakaoko udalaren eta "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkartearen arteko lankidetzaren araubidea eta baldintzak arautzea, Lankidetza-hitzarmen honek burutu nahi dituen programak osatzen dituzten ondoko jarduerak antolatzea eta burutzea bermatzearren:

1.programa: AUKEREN AZOKAK.
Galdakaoko udalarekin lankidetzan, bi aukeren azoka egingo dira, bata, martxoan, eta, bestea, urrian. Elkartearen zerbitzura 15 eguneko dedikazio esklusiboan diharduen langilearen lan-kostuak, eta azokak egiten diren hileko telefono-kostuen erdia egotziko zaizkio.

2. programa: GU PROIEKTUAK.
Herriko merkataritza sustatzeko hiru kanpaina izango lirateke. Web bidez eskuratuko liratekeen deskontu bonoak (Gu Auzokideak); sare sozialen bidez merkataritza establezimentuen sustapena (Gu Zabalik gauz) eta moda eta sukaldaritza

**CUARTO. -** Que el Presupuesto del Ayuntamiento de Galdakao para el ejercicio 2020 comprende una previsión de subvención nominativa de **80.000,00** euros a favor de la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao, con cargo a la partida presupuestaria nº 04.4314.481.20 cuyo objeto consiste en la colaboración con el programa de actuaciones y actividades a realizar durante el año 2020 con el objetivo del fomento del comercio local.

**QUINTO. -** Que el Ayuntamiento de Galdakao mediante Resolución de Concejal Delegado del Ayuntamiento de Galdakao de 08/06/2020, ha resuelto conceder a la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao, con CIF G48849483, la citada subvención bajo la condición de suscripción de un convenio regulador, condición que se cumple con el presente documento.

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, manifiestan su interés en la suscrición del presente Convenio de Colaboración de conformidad con las siguientes

**CLAUSULAS**

**PRIMERA. - Objeto**
El objeto del presente Convenio es regular el régimen y los términos de la colaboración del Ayuntamiento de Galdakao y la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao con el fin de garantizar la realización de la organización y celebración de las siguientes actuaciones y actividades que conforman los programas objeto de este Convenio de Colaboración:

Programa 1: FERIAS DE OPORTUNIDADES.
En colaboración con el Ayuntamiento de Galdakao se realizarán dos ferias de oportunidades, en marzo y en octubre, a las que se imputarán los costes laborales de la persona trabajadora al servicio de la asociación con una dedicación exclusiva de 15 días de actividad, y la mitad de los costes de telefonía del mes en el que se realicen las ferias.
Programa 2: GU PROIEKTUAK.
Tres campañas dirigidas al fomento de la actividad comercial del municipio. Bonos descuento a adquirir a través de web (Gu Auzokideak); promoción de los establecimientos comerciales a través de rrss (Gu zabalik gauz) y un concurso de



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 9

txapelketa bat sare socialetan (Gu moda).
3. programa: BONODENDA 2020.
Herriko merkataritza sustatzeko kanpaina, Galdakaoko saltokietako bezero potentzialentzako erosketa bonoen diru-laguntza. Kanpaina honetan, bono bakoitzeko 5 €ko diru-laguntza eta Elkartearen zerbitzura dedikazio esklusiboan dihardduen langilearen lan-kostuak programaren kudeaketako kostuak, laguntzaren aplikazioaren zuriketaren ikuskaritza kostuak eta Bonoen produkzioa egotziko zaizkio.
4. programa: MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOA
Merkataritza teknikari especialista baten zerbitzua Eusko Jaurlaritzari eskatzea, merkatariei laguntza eta aholkularitza dohanik eskaintzeko..

5. programa: COVID-19ren AURKAKO NEURRIAK
Kanpaina hau herriko merkatari denei zuzendutako dago. Osasun materialaerabiltzeko derrigortasuna dela eta merkatarien artean honako material honen banaketa egingo da: aurpegirako pantailak, maskarilak, eskularruak, gel desinfektatzaileak, …
6.programa: AUDITORETZA
Dirulaguntzaren kantitatea handia izateagatik, auditoretza bat egin dezakegu.
7.programa: ASOZIAZIO-KULTURA SUSTATZEKO KANPAINA.
Pertsona batek Galdakaoko establezimenduetatik azalduko die, bezeroengana iritsi ahal izateko, sare sozialak erabiltzeak duen garrantzia, interesatuei banan-banan aholkuak emanez eta sare sozialak erabiltzen hasita daudenei jarraipena eginez. Osagarri gisa, iragarkiak herriko prentsan eta irratiko kuinak kontratatuko dira.
8. programa: DENDARIKO IRUDIAREN BERRITZEA.
Urteekin zaharkitua geratu den irudiaren berritzea.

9. programa: Aurkeztutako programari osagarri izan dakioeken bestelako jarduera guztiak Zinegotzi Delegatuaren oniritziarekin.

**BIGARRENA.- Diru-laguntzaren zenbatekoa**
Galdakaoko udalak "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkartearen jarduerari lagunduko dio 80.000,00 euroko ekarpenarekin.
Onuradunek egiten dituzten jarduerak eta eskurapenak gorabehera eta diruz lagun

cocina y moda a través de las rrss (Gu moda).
Programa 3: BONODENDA 2020.
Campaña de incentivación del comercio local, a través de la subvención de bonos de compra a los clientes potenciales de los establecimientos comerciales de Galdakao. Campaña a la que se le imputara el coste de la subvención de 5 € por bono y los costes laborales de la persona trabajadora al servicio de la asociación costes de gestión del programa, auditoria de la justificación de la aplicación de fondos y la producción de los Bonos.
Programa 4: GABINETE TÉCNICO DE COMERCIO.
Solicitud al Gobierno vasco del servicio de un técnico especialista en distribución comercial para prestar asesoramiento gratuito y apoyo a comerciantes.

Programa 5: PREVENCIÓN CONTRA EL COVID-19.
Esta campaña, va dirigida a todos los comercios del municipio. Por la obligación de utilización de material sanitario, repartiremos a los comercios material como; mascaras de protección facial, mascarillas, guantes, geles desinfectantes…

Programa 6: AUDITORIA
Por adquirir la cantidad elevada de la subvención, debemos pasar la Auditoría.
Programa 7: CAMPAÑA DE FOMENTO DE LA CULTURA ASOCIATIVA
Una persona recorrerá los establecimientos de Galdakao explicándoles la importancia del uso de redes sociales para llegar a la clientela, asesorando individualmente a quienes estén interesados y haciendo seguimiento de los que ya estén iniciados en el uso de redes sociales. Complementariamente, se contratarán anuncios en prensa local y cuñas de radio.
Programa 8 NUEVA IMAGEN DENDARI.
Renovar la imagen de la Asociación, ya que, con el paso del tiempo se ha quedado anticuado.

Programa 9: todas aquellas otras actividades que su realización pueda considerarse complementaria al programa descrito y que previamente sean consideradas de interés por la Concejalía Delegada.

**SEGUNDA. - Cuantía de la Subvención**
El Ayuntamiento de Galdakao contribuirá al sostenimiento de la actividad de la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao con una aportación de 80.000,00 euros.
Sin perjuicio de las actividades o adquisiciones que realicen los/las beneficiarios/as y que constituyan



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 9

daitezkeen gastuak direnean, Udalak onuradunek garatzen dituzten jarduerekin kolabora dezake, halakoak garatzeko behar diren azpiegiturak eta elementuak euren esku jarriz, beraiek eskatu ondoren. Entrega horiek gauzazko laguntzatzat joko dira Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Bosgarren Xedapen Gehigarriak aipatzen dituen baldintzak betetzen dituztenean.

gastos subvencionables, el Ayuntamiento podrá colaborar con las actividades desarrolladas por los beneficiarios/as mediante la puesta a su disposición de infraestructuras y elementos necesarios para el desarrollo de las mismas y que sean solicitados por aquéllos/as. Dichas entregas tendrán la consideración de ayudas en especie cuando reúnan los requisitos a que se refiere la Disposición Adicional Quinta de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

**HIRUGARRENA.-Diru-laguntzaren Ordainketa**
"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteari diru-laguntza ordainketa bakarrean eta justifikazioa egin aurretik ordainduko da, eta ez da eskatzen inolako bermerik ordaintzerik.

**TERCERA. - Pago de la subvención**
El pago de la subvención a la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao se realizará en un solo pago y con carácter anticipado a la justificación, no exigiéndose la constitución de garantía alguna.

**LAUGARRENA.-** Galdakaoko udalak, ahal den neurrian eta inguruabarrek ahalbidetzen dutenean, "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkartearen esku jarri ditzake, beharrekotzat jotzen dituen baldintzekin, jarduerak hobeto burutzeko, elkarteak eska diezaizkiokeen ekipamenduak.

**CUARTA. -** El Ayuntamiento de Galdakao, en la medida de lo posible y cuando las circunstancias se lo permitan, podrá, con las condiciones que estime necesarias, poner a disposición de la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao los equipamientos municipales que ésta pueda requerirle para mejor prestación de sus actividades.

**BOSGARRENA.- Programaren edo jardueren publizitatea**
5.1.- "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak programak egiteko gastuak, hala nola berorien publizitateak sorrarazitakoak bere gain hartuko ditu.
"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak, Galdakaoko Udalak diruz lagundutako programaren edo jardueren finantzaketari buruzko publizitate egokia eman beharko du.
Era berean, Hitzarmen honen helburuko programa zabaltzeko egingo den publizitatea euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.

5.2.- Publizitatean, eta droga-mendekotasun arloko prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea eta ondoko aldaketak betez, tabakoaren ezta edozein motatako edari alkoholikoen kontsumoa ezin izango da sustatu (kartelak, babesa, sariak etab.).

5.3.- Jardueren publizitatean, eta emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez, lengoaiaren erabilera ez-sexista

**QUINTA. - Publicidad del programa o actividades**.
5.1.- La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao asumirá los gastos de la realización de los programas, así como los generados por la publicidad de los mismos.
La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao deberá dar la adecuada publicidad a la financiación por el Ayuntamiento de Galdakao del programa o actividades objeto de subvención.
Asimismo será de obligado cumplimiento la redacción en euskera o en euskera y castellano de la publicidad que se realice con objeto de difundir el programa objeto de este Convenio.

5.2.- En su publicidad, y en cumplimiento de la Ley 18/1998 de 25 de junio, sobre prevención, asistencia y inserción en materia de drogodependencias y sus posteriores modificaciones, no se podrá promocionar el consumo de tabaco ni bebidas alcohólicas en ninguna de sus formas (cartelería, patrocinio, premios, etc…).

5.3.-En la publicidad de las actividades, y en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, deberán



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 9

egin beharko dute. Era berean, pertsonak ezin izango dira aurkeztu giza duintasunaren aldetik gehiago edo gutxiago balira bezala, sexuaren arabera, edo objektu sexual huts bezala; modu berean, ezin izango da justifikatu, hutsal gisa tratatu edota emakumeen aurkako indarkeria bultzatu.

5.4.- Diru-laguntza izan duten jardueren zabalkundeari dagokionez, entitate onuradunak dituen betebeharrak eragotzi gabe, jasotako diru-laguntzen berri eman beharko du, hain zuzen, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritako eran eta baldintzetan. Lege horretako 5.4 artikuluan dagoen aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru Laguntzen Datu-base Nazionala izango da bitarteko elektronikoa publizitate-arloko betebeharrak betetzeko.

**SEIGARRENA.- Xede bererako bestelako diru-laguntzen, laguntzen, sarreren edo laguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna.**
"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak, subentzionatutako programa finantzatzen duten bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jakinarazi behar ditu.
Galdakaoko Udalak emandako diru-laguntza bateragarria izango da Elkarteak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik helburu bererako jasotako diru-laguntzekin. Edozein kasutan ere, diru-laguntzen bitartez edo beste iturri batzuetatik lortutako finantzazioaren kopuru osoak ezin izango du diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

**ZAZPIGARRENA.-Diru-laguntza ustifikatzeko epea**
"Asociación Dendari Elkartea Comercios – Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak jasotako funtsen aplikazioa justifikatu beharko du, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik, edo, bestela, hitzarmen hau sinatu eta biharamunetik hasita **2 hilabeteko epea bete baino lehen**, baldin eta hitzarmena proiektua edo diruz lagundutako jarduera amaitu ostean sinatzen bada.

**ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntza Justifikatzeko era**
"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak

realizar un uso no sexista del lenguaje, asimismo no podrán presentar a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, o como meros objetos sexuales, así como justificar, banalizar y/o incitar a la violencia contra las mujeres.

5.4.- Sin perjuicio de las obligaciones respecto a la difusión de las actividades subvencionadas, la entidad beneficiaria deberá dar publicidad de las subvenciones percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. En el caso de que se haga uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la citada Ley, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

**SEXTA. - Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.**
Deberá comunicarse por parte de la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado.
La subvención del Ayuntamiento de Galdakao será compatible con las de otras administraciones o entes públicos o privados para la misma finalidad. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado.

**SÉPTIMA. - Plazo de justificación de la subvención**
La Asociación Dendari Elkartea Comercios – Hostelería y Servicios de Galdakao deberá **justificar,** en todo caso, la aplicación de los fondos percibidos, **en un plazo inferior a los 2 meses** contados desde la finalización de la actividad subvencionada o, en su caso, contados a partir del día siguiente al de la fecha del presente convenio, cuando ésta sea posterior a la conclusión del proyecto o la actividad subvencionada.

**OCTAVA. - Forma de justificación de la subvención**
La Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao estará obligada



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 9

ezarritako baldintzak bete dituela eta diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu duela egiaztatu beharko du.

Diru-laguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du ondoko agiriak dituen justifikazioko kontu ez sinplifikatuak:

a) Ziurtagiria, diru-laguntza eman zeneko helburua, aurkeztutako proiektuaren arabera bete dela ziurtatuz. (Udalak emaniko ereduaren arabera).

b) Jarduketa memoria, egindako jarduerak eta izandako emaitzak aipatuz, jardueren dokumentazio grafikoez (argazkiak) baliatuz.

c) Programa burutzeari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, beste erakunde, entitate edota pertsona publiko edota pribatuen aldetik jasotako bestelako laguntzak edota diru-laguntzak zehaztuz. Balantzea idazkariak izenpetuta egon beharko da eta Entitate Onuradunaren Presidenteak emandako oniritzia izan beharko du. (Udalak emaniko ereduaren arabera).

d) Bestelako Erakunde Publikoen diru-laguntzak edo laguntzak emateko erabakien kopia.

e) Gastuen jatorrizko fakturak eta berorien fotokopiak, gutxienez, emandako diru-laguntzaren zenbatekoraino, diru-laguntza egoki erabili dela arrazoizko ziurtasuna eman dezaketenak.
e.1.- Bonoak erosi ditzuten pertsonen NAN zenbakien zerrenda.
e.2.- Bonodenda kanpainan parte hartzen duten merkatal establezimentu denen zinpeko aitorpenak; bertan Bonodenda bitartez egindako salerosketen faktura/ticketak adieraziko dira.
e.3.- Merkataritza establezimentuei bono bakoitzeko “Asociación Dendari Elkartea Comercios – Hostelería y Servicios de Galdakao"-k, ordaindutakoaren banku ziurtagiria.

a acreditar el cumplimiento de las condiciones impuestas y de la realización del proyecto o actividad subvencionada.

Tendrá validez jurídica para la justificación de la subvención la cuenta justificativa no **simplificada que comprenda los siguientes documentos:**

a) Certificación, de que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención, conforme al proyecto presentado. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento).

b) Memoria de actuación, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, acompañando de documentación gráfica (fotografías) de las acciones realizadas.

c) Balance de todos los ingresos y gastos correspondientes a la ejecución del programa, detallando las ayudas y/o subvenciones concedidas y/o recibidas para el programa solicitado procedentes de otras instituciones, entidades y/o personas públicas y/o privadas, suscrito por el/la Secretario/a con el visto bueno del/de la Presidente/a de la Entidad beneficiaria. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento).

d) Copia de los acuerdos de concesión de subvenciones o ayudas por otras instituciones públicas.

e) Facturas originales de los gastos y fotocopias de las mismas hasta el importe, como mínimo, de la subvención concedida, como muestra que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

e.1.- Relación de nº de DNI de las personas que han adquirido los bonos.
e.2.- Declaración responsable de todos los comercios adheridos a la campaña Bonodenda, donde se detalle las facturas/ticket de compra/venta realizada a traves de Bonodenda.
e.3.- Justificante bancario de los pagos de bonos realizados a los comercios por parte de la “Asociación Dendari Elkartea Comercios – Hostelería y Servicios de Galdakao".

f) La publicidad realizada con objeto de difundir el programa objeto de este



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 9

f) Hitzarmen honek xedea duen programa zabaltzeko egingo den publizitatea; bertan Galdakaoko Udalaren babesa agertu beharko da. Era beran, publizitate hori euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.
Zabalkunde-neurriak diruz lagundutako helburuari egokitu beharko zaizkio, bai eraz bai iraupenez, entitate emailearen irudi instituzionala sartuz, hala nola finantzaketa publikoari buruzko legendak jarriz bai karteletan, oroigarrizko plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan zein ikus-entzunezkoetan, edota komunikabideetan egindako aipamenetan.

g) Gastua hobeto justifikatzeko Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentazio, adibidez, erantzukizun-adierazpena, bertan aurkeztutako fakturak jatorrizkoak direla adieraziz eta konpromisoa, faktura horiek beste entitate publiko zein pribatutan ez aurkezteko, laguntza justifikatzeko dagokion balidaziorik gabe

Convenio, debiendo de figurar en toda ella el patrocinio del Ayuntamiento de Galdakao. Asimismo, será de obligado cumplimiento la redacción en euskera, o en euskera y castellano de dicha publicidad.
Las medidas de difusión deberán adecuarse al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, pudiendo consistir en la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

g**)** Cualquier otra documentación que el Ayuntamiento pudiera requerir en orden a la mejor justificación del gasto, como una declaración responsable en la que se indique que las facturas presentadas son originales y compromiso de no presentar dichas facturas ante cualquier otra entidad pública o privada a efectos de justificar una ayuda sin la validación correspondiente.

**BEDERATZIGARRENA.- Zehatzeko araubidea**

Diru-laguntzen arloan, administrazioko arau-hausteak dira, Legean eta diru-laguntzak ematea arautzen duten Ordenantza orokorraren 47, 48 eta 49 artikuluetan tipifikatuta dauden egitateak eta ez-egiteak. Zehazki, arau-hauste arina da jasotako diruei emandako aplikazioa frogatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.

**NOVENA. - Régimen sancionador.**

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en la Ley y en los artículos 47, 48 y 49 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones. En concreto constituye infracción leve la presentación fuera de plazo de las cuentas justificativas de la aplicación dada a los fondos recibidos.

**HAMARGARRENA.- Diru-laguntzaren kontrola**

"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak onartuko du, Udalak egokitzat jo dituen subentzionatutako prestazioen egiaztatze eta jarraipen jarduerak egin ditzan.
Era berean, "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak onartuko ditu eskumena duten kontrol-organoek finantzak egiaztatu eta kontrolatzeko jarduerak egitea, horretarako Diru-laguntzei buruzko 38/20103 Legea, azaroaren 17koaren 44.4.a), b), c), d) y f) eta 5. artikuluan dagoen dokumentazioa aurkeztu beharko duelarik, hala eskatu balitzaio.

**DÉCIMA. - Control financiero de la subvención.**

Se someterá la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao a las actuaciones de comprobación y seguimiento de las prestaciones subvencionadas que el Ayuntamiento estime oportuno efectuar.
Así mismo se someterá la Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao a las actuaciones de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes debiendo aportar a tal efecto, si así fuera requerida, la documentación contemplada en el artículo 44.4.a), b), c), d) y f) y 5. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 9

"Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" elkarteak kontabilitate-liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako agiriak behar bezala auditatuta eduki beharko ditu, indarreko legeriak agindu bezala, egiaztatze eta kontrol jarduerak ondo egingo direla bermatu ahal izateko.

**HAMAIKAGARRENA.- Betekizunak ez betetzea, eta itzulketak**

Erakunde onuradunak diru-laguntza gisa jasotako kopuruak eta diru-laguntza ordaindu denetik itzulketa egitea bidezkoa dela erabakitzen den arte aurreikusitako interesak itzuli beharko ditu, diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren 38 eta 39 artikuluetan jasotako kasuetan eta horiek agindu bezala. Horien artean, hurrengo kasu hauek daude:

a) Diru-laguntza eskuratu bada eskatutako baldintzak desitxuratzea edo hura eskuratzea galaraziko zutenak ezkutatzea.

b) Osorik edo zatika ez bada betetzen diru-laguntza ematea oinarritzen den jarduera edo proiektua.

c) Zuritu beharra ez bada betetzen edo behar adina ez bada zuritzen, Ordenantzaren 32. artikuluan esandako eran.

d) Ordenantzaren 9. artikuluko h) letran eta 14. artikuluan agindu bezala, jardueraren finantzazioaren zabalkundea egiteko betebeharra ez betetzea.

e) Indarrean dagoen araudiak aurreikusitako egiaztapen eta finantza kontroleko lanen aurka egiten bada, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie, edo uko egiten bazaie, baita ere kontabilitate, erregistro edo agirien kontserbazio beharrak betetzen ez badira, horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsak zertan erabili diren, helburua bete den, edo zein diren diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna; era berean, edozein

La "Asociación Dendari Elkartea Comercio - Hostelería y Servicios de Galdakao" deberá disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación vigente que les compete, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

**UNDÉCIMA. - Incumplimientos y reintegros**

La Entidad Beneficiaria deberá proceder al reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención y de los intereses previstos desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos y conforme prescriben los artículos 38 y 39 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones, y entre los que se hallan los siguientes supuestos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en el artículo 32 de la Ordenanza.

d) Incumplimiento de la obligación de difusión de la financiación de la actividad establecida en la letra h) del artículo 9 y en el artículo 14 de la Ordenanza.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la Ley y en la Ordenanza, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentación cuando de ello se verifique la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 9

Galdakaoko Udala

www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan, helburu bera lortzeko diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak ematen baditu.

Gehiegizko finantzazioa badago, diruz lagundutako jarduerei dagokienez, dirua itzuli egin beharko da.

**HAMABIGARRENA.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa**

Hurrengo araudiek arautuko dute hitzarmen hau: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Lege horren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Galdakaoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoetako Diru-laguntzak Arautzen dituen Ordenantza Orokorra, hain zuzen Udalbatzak 2005eko ekainaren 24an onartutakoa eta Udalbatzak 2007ko azaroaren 28an aldatutakoa.

**HAMAIHIRUGARRENA.- Hitzarmenaren interpretazioa**

Galdakaoko Udalak interpretatu eta ebatziko ditu Hitzarmen hau aplikatzean sor daitezkeen zalantzak.

**Eta agertutako alderdiak ados daudenez, agiri hau bikoiztuta sinatu dute, ondorio bakar baterako eta goian adierazitako tokian eta datan**

para la misma finalidad, procedente s de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

El exceso de financiación con relación al coste de las actividades subvencionadas también será motivo de reintegro.

**DUODÉCIMA. - Régimen jurídico aplicable**

El presente Convenio se regirá por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley, y por la Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Galdakao en sesión celebrada el 24 de junio de 2005 y modificada por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2007.

**DECIMOTERCERA. - Interpretación del convenio**

La interpretación y resolución de las dudas que de la aplicación de este Convenio pudieran surgir corresponderá al Ayuntamiento de Galdakao.

**En prueba de conformidad de las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.**

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE



Baliozkotze Kod.: 5KT7JE36ZQZ4KXTJLM3KMQM7E | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 9